

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Bikuña Urzelai

*Oñati, Gipuzkoa
(1935-2022)*

Aurkibidea



Biografia



Garagaltza auzoko Albarditzaga (Albarritzaga) baserrian jaio zen 1935ean. 4 anai-arreba izan ziren. Ama Albarditzaga bertakoa zuen eta aita Txopekoa. Aita baserriko arotza zen, baina Arrasateko zerrajeran ere ibili zen lanean. Aitajauna hargina zen eta harengatik hasi zen bera ere lanbide horretan. Arantzazun igeltsero lanetan ibili ostean, hargin lanetan hasi zen aitonak bultzatuta. Parrokian lan ugari egin zituzten eta portugaldar bat izan zuen irakasle. Herritik kanpora ere hainbat lan egin zituen eta ondo ezagutzen zituen inguruetako harrobiak. Emaztea ere oñatiarra, Antzuelas baserrikoa.

Zintak

ONA-066

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-29
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-067

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-29
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Albarritzako baserriko Jabier

- **Erref:** ONA-066/002
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:02:43. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

1935. urteko abenduaren 28an jaio zen Jabier, Albarritza baserrian. Inuzente egunean jaio ere. Egun horretan elkarri bizkarrean paper pusketak jartzeko ohitura zegoen bere eskola garaian. Beste bi anaia eta arreba bat ditu.

Transkripzioa

- Esango dozu zure izena eta bi apellido ta ze urtetan jaio ziñan?
- Nik izena Jabier Bikuña Urzelai.
- Bai, eta ze urtetan, ze egunetan jaio ziñan?
- Ni jaio nintzan abenduan 28xan, atzo izan zan nere urtebetia. Abenduen 28xen 1935ien.
- Iñozente egunian?
- Bai, Iñuzente egunian.
- Lehen be bai izaten zan Iñuzente eguna?
- Bai, betik, betik, ez, ez, guk betik hola ezagutu dogu.
- Eta zenbat anae-arreba ziñain?
- Lau. Hiru anae eta arreba bat. Txikiñena, gaztiena, arrebia, Belaskuan bizi dana.
- Nun bizi dana?
- Belaskuan bizi da, bai.
- Eta lehen Iñuzente egunian, holan iñuzentadak eta egitten ziran edo?
- Bai, betik, bueno, horixe, alkarrerri zerien, bixkarrian papelak ifiñi ta guk eskolan ta, pentsau guk eskolan noiz ibilli giñan eta orduan be itten ziran holakuak.
- Baiña zuretake Iñuzente egunian zeuk urtiak betetia, beuken bere zeretxua, ezta?
- Bai, ta orduan etzan Iñuzente egunian ba gu ibiltten giñan papelak eta ifiñi alkarrerri bixkarrian eta zerian bai eta, eskolan etzan egoten hainbeste, oin beste opor apenas egoten zan e? Gabonetan ta egun batzuk eta bai jai baiña normalian oin baño opor gutxiao egoten zan. Jai gutxiao eta eskolia jarraitu itten zan. Eta holako gauzak itten ziran.
- Jaixo nun in ziñan? Hemen berta?
- Jaixo? Bertan, baserrixan, bai. Hemen, eta hemen bizi gara.
- Zela dako izena baserrixak?
- Albarritza. Bere izena, jatorrizko izena dako Albardizaga. Hori eskritturan ta ifintten dau Albardizaga, baiña guk betik eta herrixan betik Alabarritza, samurrau esaten da ta, bai. Hola da.
- Eta hau ze auzotan dago?
- Garagaltza auzuan, bai.

2. Garagaltza auzoa

- **Erref:** ONA-066/003
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Nahiz eta hasiera batean Albarritza baserria Zazpitarantz auzunean izan, gaur egun Garagaltzako auzoaren parte da. Garagaltzaren nondik norainokoak azaltzen ditu Jabierrek.

Transkripzioa

- Garagaltza auzua, fijo? Hor badagoz Zañartu ta Urrusula ta...
- Lehenengo lehenengo, ba hori eztakit, oin izango dira ba igual 200 urte igual, baiña lehen hau Albarritza, hau zan Zañarturi tokaitten xakon, Zañartuko auzounan euen, eta gero garai baten aldatu zan itxuria danez Garagaltza auzora. Zeatik oin Zañartun in daue hor liburu bat? Oin dala bi urte. Bi urte edo hiru, bai. Liburu bat iñ euen eta orduan hango papeletan ta agertu da Albarritzak nola pagaitten eben bere kuotia, urtien kuotia Zañartuko auzuari, bai, han dau; baiña garai baten aldatu zan Garagaltza auzora eta oin Garagaltza auzokuakin jarraiketan dogu. Hau auzua hasten da bariantian, zerian...
- Kanposantua be Garagaltzan sartzen da, ezta?
- Bai. Kanposantua ta...
- Eta zure taillerra, dakotzuna han Goribar Goittin? Ha Goribar?
- Ha Goribar, oin arte Goribar izan da eta da, eta haren onduen in (di)ttuein honeik Ulmak in (di)ttuen fabrikak Garagaltza auzoko partian dao, bai. Eta hau Urrutxu eta Santipillau eta hau zerau, hau Belatxarako hori arbolagune hori danori, hori ja Garagaltza auzokuan sartzen da hori.
- Eta Iruatz aldia ta?
- Iruatz be bai, Soraluzeaiño.
- Soraluzeaiño.
- Soraluze ez.
- Ha Lezesarri da?
- Soraluz da Uribarri.
- Uribarri. Eta kamiñua pasauta Lezesarri, ezta? Honeik Goixenetxe ta nun dagoz?
- Goixenetxe da dira Berezau, Berezaukuak.
- Lezesarri nun dao ba hor?
- Lezesarri eta horreik danok dira Berezauko zerak, edo Lezesarri auzua izango da bihar bada.
- Bai, nik uste dot Goixenetxe Lezesarrin dauela, uste dot e?
- Azkontegi ta horreik Lezesarri izango dira, bai. Garagaltza auzua da Iruatz, Kamamoño, eta hortik Kurpide Okunbardinin eta Altamira be bai. Altamira be Garagaltza auzokua da; eta oin, lehen Etxebarrialde bixak be bai, baiña oin bariantia in zan eta oin bariantetik gorakuak dira. Bai, baiña eurak auzotasunian oin be Garagaltzakuan dagoz, e?
- Etxe barrixak be bai?
- Ez, ez, Etxebarrialde bi hareik lehen Garagaltza auzokuak ziren baiña gero bariantia...
- Hareik etziren San Juanekuak?
- Ez, San Juan eta Garagaltza bat da, berdin da. San Juan auzua eta Garagaltza auzua berdin da. Bixak dira...
- Izen bat da bixena?
- Bai, izen bat. San Juan auzua San Juanetan fiestak izaten diralako, baiña bestela izan Garagaltza auzua da.
- Hori pasatzen da auzo askotan, ezta? San Prudentzio... Elorregi.
- Bai, bai, baiña Garagaltza auzora. Eta oin zerak, bariantia in zanian Etxebarrialdeko bi etxe horreik geldittu dira San Juan kale moduan, eta bariantetik gorakuak danak horreik, etxe batzuk badagoz Otxuena ta, horreik goixan geldiketan dira, Garagaltza auzuan, mojak eta horreik. Eta ondo! Han hasten da auzua eta haxe azkenengo etxia, haxe, oin alabiena ta.
- Ha tellerixa zaharra be bai, Garagaltza?
- Baita, Garagaltza. Ta Kamamoño eta hor, eta gero hemen erreka aldian gu eta Altzin be bai, Iraban, eta zerak, Benturena, Zuazola.

- Iraban be Garagaltzan sartzen da?

- Bai.

- Nun akabaitten da ba Zañartu?

- Zañartu errekiak erabagitten dau. Ditzosuena eta Etkezuri ta horreik dira Zañartukuak, eta errekiak bestekaldetik, Zuazola eta Benturena ta Garagaltzakuak, bai. Holaxe itxuria garai baten in zittuen ta hola jarraiketen daue.

- Iraban ta zuek errekien bi aldetara zagozai.

- Bai, hori lehen esan dot, lehen Garagaltza auzuan, edo Zañartu auzokuak giñan, bueno hau etxiau zan, eta oin bestekaldera, garai baten pasau euen bestekaldera eta oin ba hola jarraiketan dogu. Altzin be bai, Altzin be errekiak hemetikaldetik dau baiña ha be Garagaltza auzoko partia da, bueno hola behintzet ibiltten gara eta hola gure zerok.

3. Eskola ibilbidea

- **Erref:** ONA-066/004
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:09:55. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bi urtetan eskolara Zañartura joan zen. Sor Karmen izan zuen maistra bertan. Handik ospitalera eta gero maristen ikastetxetara, "Maixo Baltzakin". Eskolak erdaraz jaso zituen oso-osorik. Euskaraz egiten zuenak zigorra jasotzen zuen.</p>

4. Eskola eta soldadutza

- **Erref:** ONA-066/005
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Soldaduen moduan ilarak osatuta abestu behar izaten zuten Cara al Sol, egunero, maristen eskolan. Soldadutzan ere berdin-berdin. Hondarrabiko Guadalupen lehenengo eta Loiolan gero, Ingenieroen alorrean egin zuen soldadutza baina, batez ere pikatxoia eta pala erabili zituen bide, horma eta zubigintzan.</p>

Transkripzioa

- Eta pentsau egizu zelakua zan, eskua jaso ta "Cara al Sol" kantau goizian sartzeko, ta ikurriñori, banderiori Españako banderiori jaso gora eta arratsaldian eskola danak urten, bost eskola euzen, bostak formau soldauak formaitten diran letxe, formau banderiori begira eta atzera kantau ta rra, jaitsi ta erretiraitten euen, hola ibilli giñan.

- Egunero, egunero.

- Egunero, bai. Eta gozian fandakuan soldauak letxe formauta, aldiko bi,

soldauak hiru illaratan kolokaitten dira baiña gu aldiko bi, illara bat leheningo kursua, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, bosgarrena, bost ziren, bai.

- Hori urtetzeko eskolatik, formatzen ziñazien?

- Sartzeko be baitta, goizien sartzeko be formau ta kantau, zeori banderiori jaso ta eguardixen ez, illunkaran jaisteko atzera. Soldautzan be holaxe itten geben. Soldautzan be bai kanpamentuan egon giñanian zerien, zerien Hondarrabin han goixan egon giñan eta han be tronpetia joten euen eta zerok armok ifiñi zerien eta ikurriña edo zeori banderiori jaisten zan eta jaso be igual; han Guadalupen goixan egon giñan, bai, han eta kuartelian zerian, Loiolako kuartelian. Gu zerak giñan, injeneruak, izena oso politta geukan guk, "Soldados de ingeniero" esaten oskuen guri, "Soldados de ingeniero" ta gure lana zan pikatxoia eta palia, "pico y pala", bai. Zapadoriak giñan, zapadoriak ziran zubixak itten ta, han ibiltten giñan egurrezko zubixak in ta.

- Zu ordurako baziñan ja hargiña?

- Ez, bai, bai.

- Horreatik hartu zindduein zu harako.

- Bueno, ez baiña nere modura asko egon ziren. Gu egon giñan euskaldunak, riojanuak eta galleguak egon giñan, bai.

- Eta orduan zubixak eta bidiak be bai itten zenduzen edo?

- Bai, kamiñua itten, Naparruan be ibilli giñan kamiñua itten. Han zerok porlan zakuak hartu, bixkarrian hartu porlan zakuak eta behetik gora pagoduixan gora igoten geben masia ta itteko, kanterillak eta itteko ta, ibilli giñan han be. Ezkiñan, erreka ezkiñan paretak eta in ta, hormak eta in ta, han be. Eta tiruakin, tiruak barrenua sartu ta tiruak zerak, dinamitiakin ta, sarjento batzuk bageukan hareik, guk ez gekixen asko baiña hareik be ez asko, han ibiltten giñan billurrez aidian, bai.

- Harrixak apurtzeko ta dinamitiakin.

- Bai. Bai, lekua itteko ta holako zerien ta.

- Ze urte zan zu soldauskan egon ziñanien?

- Berrogeta hamaseixan, cincuenta y seisian. Cincuenta y seisian... cincuenta y sietian fango giñan, bai.

- Oseake, ya gerraosteko gosiok-eta pasauta?

- Bai, bai, pittin bat pasauta, bai.

5. Presoak ihesean

- **Erref:** ONA-066/006

- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:20:17

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gerraostean, gerran zauritutako jendea eskean etortzen zen etxera; Frantziara bidean joaten ziren lan-esparruetatik ihesi.

Transkripzioa

- Zer moduz izan zan hemen etxian gerraostiori?

- Hemen etxian? Ba gu mutikuak, mutikuak gu ba badakitzu, mutikuak giñan eta ezkeben holako zerik baiña asko ni akordaitten naiz zerak, jente asko etorten zan eskian. Zerbait, zerbait, ez, gerran ta ibillittako jentia ta, hola emuten gosten eta ikusi, hementxe, metralliakin ta baliakin ta,

bernatan ta hanketan ta
etzakizu, zerak, metralliakin eta zertutakuak, eta guretzako orduan
gaztiak, hareik edadekuak ete ziran baiña 30 azpittik, 30 urte azpittik
izango ziren gehixenak. Eta gero hola, ba emuten xaten zeozer jaten
etxien euen zeozer jaten ta faten ziren, eta Frantzia aldera. Frantzia!
Frantzia! Esaten euen. Eztakit bidia eta jakin ez bidiak be ondo nundik ibilli
ta, eta guk eztakigu ha gora ala behera ala nundik etorten ziren, ta gu
mutikuak eta hor. Gero eskekuak be bai, eskekuak be etorten ziran.
Eskekuak ja zaharrauak eta zerak eta hor ganauak, lehen ganauak be
bageukan ta ganuan onduan aska aurrian jana eta egoten zan lekuan epel
egoten zan eta hor lo in ta faten ziren. Gabaz igual etorten ziren gabaz ta
illuna zerien ta aber lo itteko lekua edo zeozer ta ganauen onduan epel.
Eta hor jaten emuten xaten zeozer eta goizian denporaz jaikitten zan
hemen, esniak eta kalera ta eruan bihar izaten zan eta behixak jaitzi eta
itteko eta gu esniakin batera faten giñan ba horixe, esnedunakin batera
eskolara, beratzittarako faten giñan eskolara ta badakitzu, zazpiretan edo
jaikitta gebitzen jentia ta orduan ba eurak be jaikitten ziren eta zeozer
jaten euen eta biaje. Eta hola.

- Eskekuak honaraiño, Albarritzaraiño!

- Bai, bai, eskekuak. Eta gerra ondorian akordaitten naiz gaztiak, hareik
gaztiak ziren, zerak, holako zerak, zikatrizak eta besuetan, hankak eta
frakak ta jaso ta.

- Horreik etortzen zirenak, kanpokoak izango ziren, hala?

- Frantzia aldera, Frantzia alderako martxia esaten euen. Hareik ihesi
etozen, hareik e, honeik trabajorietan edo, hor gero gerra ondorien asko
ibili euen hor ta, tunelak eta itten ta trenbidia ta in bihar euela eta eztakit
zer ta gauzak presuak moduan danian, eta handik ihes in dakuak izango
ziren. Zeatik jente gaztia e? Hareik ihesi, ihesi norabait, hareik artian
makilla peian.

- Harrapo ezkerro egurra.

- A bai, egurra? Atzera be lanera. Ba hola, bai. Ba horixe guk ezagutu
geben, gero handik aurrera badakitzu, hasi giñan lanian ta handik aurrera
ba...

6. Ardiak edo behiak

- **Erref:** ONA-066/007
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Jabier lanean hasi zenean kendu zituzten ardiak. Orain ganaduak kendu
dituzte eta ardiak jarri berriro.

7. Harginak eta arotzak

- **Erref:** ONA-066/008
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Albarritza baserrian, garai batean, etxebizitza bakarra zegoen. hala ere, sute baten ondorioz etxea berreraiki zuten eta bi etxebizitza egin zituzten.

Jabierren aitajaunak erosi zuen baserrria; ordura arte erreteroa izan ziren bertan. Aitajaunetik datorkio Jabierri hargintza zaletasuna. Bere aita berriz arotza zen.

8. Oñatiko indar etxeak

- **Erref:** ONA-066/009
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

1920. urtetik 1928. urtera egin ziren Olate eta beste indar etxetako lanak. Albarritzako etxe azpitik zihoan kanala konpondu zuten eta langileentzako argindarra jarri zuten. Orduak aurrera izan dute argia etxean. Hiru linea pasatzen ziren Albarritza baserritik, Bergara, Arrasate eta Oñatira zihoazenak.

Transkripzioa

- Aittajuna berriz, arotzeixan lehen esan dotena hemen Jaturabeko presan leheningo ibili ziren, Jaturabeko presia altzauteko, lehen bajuaua zan eta gero altzau euein puska bat. Eta Jaturabeko presia, Zapatako deposittua, Olateko zentrala eta honeik itten eta itxuria hemen pasadizuan, ba gaztiak, eta hemendik pasadizuan eta itxuria hemen ezagutu ziran eta hemengo alaba batekin ezkondu zan, nere aittajuna. Eta orduan ba hau etxiau, hemen Olateko hori in ziran hemen 1920ttik 8ra bittarteko obrak izan ziran hemen, depositto eta tuberixa eta zentrala. Bai ta gero hemen be bai etxian, etxia baiño beheratxuau pasaitten da kanala, urak beheko zentralera. Hor bertan pasaitten dira, etxe onduan ezkutuan doiaz azpittik.

- Orduan zuek argi inddarra aspaldittik euko dozue.

- Ba hemen kanala altzaitten ibili ziren, lehen kanal txikixa ta gero haunditxuaua itten ibili ziren. Hemen etxe azpitan bertan pasaitten da, dana tapauta dago. Hor zerak, badakitzu soruak eta, soruak eta orduen inportantiak ziren zeatik hortik jaten zan, eta itten euen kanala pasau, baiña tapau ta berriz lurra ifiñi, labraitteko ta, laboria ta hartzeko. Eta tunelian lana in bihar, eta orduan ekarri euen Olateko zentraletik hona argixa.

- Tunelian lana itteko?

- Lana itteko. Eta orduan ifiñi ziren etxetara argixak, eta gu urte batzutan, urte batzutan euki geben, bastante urtietan, argixa debalde. Baiña pasau zan kanala eta beste hiru linea pasaitten ziran hemendik, Mondrauera eta Bergarakua eta gero Urdaolako zentralera. Hemen pasaitten ziren eta ...

- Baiña horreik danak Olatetik faten ziren?

- Olatetik. Eta Olateko zentraletik linea bat euen "30.000"eko linea bat euen Mondrauera, Mondrauen Zerrajerara, eta beste linea bat Bergarako Altos Hornosera. Bi linea pasaitten ziren lehen linea haundixak; eta gero beste bat "5.000" a hemen etxe ondo-ondotik, eta gero beste linea batzuk

be bai hemen ta bueno, horrein aldera zera ...

- Zela esan dozu leheningo bi linea haundi horrein izena?

- "30.000"ak, "30.000"ak bat Mondrauera eta Bergarako, Bergarako Altos Hornosera.

- Eta "5.000"ak bestia ...

- "5.000"ak hemen zentral batetik bestera, hemendik makiña etxeko, bueno makiña etxia esaten xau guk baiña hortik Urdaolako indar etxetik horra, eta gero hortik faten zan kaletik zera, Tokillora ta, Ubaora ta, dana euen enlazauta. Indarra faten zana ba batetik bestera fan eta gero linea haunditik botaten euen, itxuria.

- Eta horreik zueri hona inddarra ifiñi otsueiñien obrakatik edo, hori ze urte inguru zan?

- Hori? Hemen ze urte seguru eztaikit baiña 1920ttik 28ra bittartian in zan hemengo lanak. Hemengo inddar etxeko lanak, Zapata, Jaturabe, Olate, bai gero hor beste bat badao Ursulara bidian beste depositto haundi bat be, horreik kanalok danok hortxe, hortxe in ziran.

- Aitzgaiñekua be ordukua da?

- Aitzgaiñekua be bai, Aitzgaiñekua be orduentxe in zan. Horreik danok batera...

- 1920...

- 20ttik aurrera, 20ttik 28ra bittartian hortxe. "1924, 26" be batzuetan ifintten dau gauza batzuk hemen eta hola, eta hau kanalau ta ba orduentxe in zan. Horreik inddakuan hau be bai, kanala beuen baiña haundixaua in zan gero. Ur gehixago euen ba hemen, hareik turbiñak botaten euena beheko makiña etxian aprobetxaitteko haundixaua, ta orduan, ta holako...

9. Arantzazun igeltsero

- **Erref:** ONA-066/010

- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:30:27. **Bukatu:** 00:34:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Igeltsero ikasten hasi eta Arantzazuko eliza berria egiten parte hartu zuen.

Hala ere, bertako harginak galiziarrek eta zamorarrak ziren batik bat.

10. Herrian hargintzan

- **Erref:** ONA-066/011

- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:37:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Arantzazukoa utzi eta aitajaunarekin hasi zen hargin lanetan.

Soldaduskara joan eta bukatu zuenean hargintzan jarraitu zuen. Herri barruan udalarentzako makina bat lan egin zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta gero aittajuna, hemengo aittajuna ebillen ba aiuntamiento, udaletxeko lanetan ebillen, hor zerien, ba horma batzuk eta egin ta; ba Reyes euen orduan ta Reyesek reforma asko in zittuan kaliak, bidiak eta zabaldu, horma barrixak eta in ta gu etxera, Arantzazun ba apopillo Sindikan, zapatuan etorten giñan, zapatuan orduan illunkara arte itten zan lana e? Eta etxera etorten nintzan eta aittajunak betibe esaten nostan, Arantzazura fan barik, haraiño fan barik hemen behien be baxakuau ba hiretzako lanak, eta hola eta. Bai e? Eta nun zabitzai ba? Eta halako lekutan eta hori bestia itten eta bueno, guk e... gu geure martxan aurrera! Eta hurringo halako baten etorritta etxera ta, hemen be baxakuau ba hiretako lanak, hori esaten nostan sarri, sarri ba hola 3-4 bat aldiz edo behintzet esango nostan ta, esan notsan etorri ingo ete naiz ba? Eta bai, etorriko baitza, badakitzu, baten bat gura edo eztakit ba. Eta ni han be gustora nebillen, Arantzazun, eta ondo pagaitten euen gaiñera, bai, Uriartek. Eta, etorri ingo ete naiz ba? Bai, etorriko baitza. Eta halako baten bueno, dezidiu nintzan etortera. Eta gero hortxe hasi giñan, ibili nintzan beste .. bai, bastante denpora, eta gero hortik soldau.
- Eta hor hasi ziñan orduan hargin, hargin lanetan?
- Bai, hortxe. Eta gero soldau, eta gero soldautzatik etorri ta ba berriz hortxe, udaletxeko lan batzutan. In gittuan ba Txaketueneko itturria aldatu, Txaketueneko itturria...
- Ha gora jaso?
- Atzerao. Eta plazako itturria be han kiosko aldian euen eta ha be atzeratu in geben, eta gero han Gernikako arbolia badau ba arbola haundi bat? Haritza? Hari harrixak eta ifiñi eta itturrixok eta itturri ondoko jarlekuak eta ifiñi ta gu hor ibili giñan; ta hor lehen han dukien etxeraiño euen itxuria jarlekuak eta, eta atzeratu zanian ba Gernikako arbolia pare-parien tokau zan, eta jarlekuak sobrau in ziran eta horreik jarlekuak han sobrautakuak dauz parroixia eta abade etxia bittartien, ifiñi gittuan. Bai, zera plazako itturria han jeneralori dauen itturriko jarlekuak.
- Elorza, araoztar bat.
- Bai, eta han abadixa ondolik parroixako zerak, handik ekarritakuak dira, bai. Eta gero hor zerian, unibersidadeko zubixa ha be zabaldu in geben.

11. Parrokiko lanak

- **Erref:** ONA-066/012
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:41:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Parrokian egin zituen zaharberritze lan asko hargin moduan, Reyesek (alkateak) aginduta.</p>

12. Maisu portugaldarra

- **Erref:** ONA-066/013
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:41:08. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harria lantzen zuen portugaldar bat izan zuen maisu herriko parrokiako eraberritze lanetan. Maisuarekin oso ondo konpondu ez arren, gauza asko ikasi zituen berarengandik.

Transkripzioa

- Eta gero hargintzan ba hortxe ikasi geben guk. Lehen ba manposterixan eta bai, ba itten geben, eta puska bat lan alde eta pittin bat ikasitta, ja hasitta neuen puska bat itten ta hola, baiña neure erara, baiña gero harrixa labraitten ta hola, hargin-hargin ba lan fiñauan hor ikasi geben, klaustruan. Klaustruen bertan...
- Eta beuen iñor irakusten? Edo... edo orduak sartuta?
- Portuges bat ibili zan. Leheningo ibili nintzan portugese batekin. Eta orduan portugesa itten gittuan zerak, han klaustruan beheko kornisa batzuk eta eliza barruan be bai beste arku bat, han elizan ezkerreko aldetik be korua geuk ingotzan, ez euen korurik han.
- Halako barrixa da korua?
- Elizan altarera begira eta ezkerreko aldetik dauena, ha geuk in geben barrixa. Eta gero, hemen sakristixa aurrian badao ba beste arku haundi bat? Hori euen lehen albuan, alboko bi posten erdixan euen, eta han gaiñian euen organua.
- Eta ze in zeuein? Organua...
- Organua aldatu zan atzekaldera, erdixan atzekaldera, eta gero arkua ekarri geben sakristixa aurrekaldera. Eta arkua hori zera da, lan askokua eta gaiñera haundixa da oso, eta hor be bagebitzen. Hori portugesa oso zakarra zan, langillia eta bazan, eta langille fiña eta bai, baiña oso zakarra zan, etzan iñokin be arreglaitten. Nik aguantau itten notsan, ba bueno, nik ba gura neben ba ikastia, eta puska bat eztakitzu? Eskua hartu eta zera, eta ba, izugarriko bronkak botaten nostan, bueno, bueno! Nolakuak? Eta nik entzun ta entzun ta entzun, ba-bai, hik esan, esan, nik neure artian, baiña nik ikusten neben bere sekretutxuok eta, bere nola itten eben lana ta hori, ta hori organuen zeori itten gabitzela, hasarratu zan, eztakit ze pasau xakon, gau baten ezkutau zan eta gehixao etzan agertu. Gehixao etzan agertu. Eta Portugalgua zan, zan Caminha-kua, zeretik pasau, hori Miño edo errekoa pasau ta bertakua han, eta hiru alaba eukan, eta alabakin eta bastante faten zan, dirua eta eruan edo bialdu edo hola, bai, baiña andriatik betik gehixki esaten eben. Eztakit andrarik eukan be, eztakit. Bueno, biziko zan baiña... eta ez ekixen 59 ala 60 urte eukan, bera dudari ibiltten zan, bai. Oso zakarra zan, e? Eta oso gogorra zan, hola gogorra inddartsua eta...
- Erderaz ingo zeban, ezta?
- Erdera, bai, portugese, erdera, baiña ondo entenditten giñan.

13. Harriaren artisaua

- **Erref:** ONA-066/014
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:44:16. **Bukatu:** 00:46:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Hormagintzan hasi eta harria lantzen bukatu zuen. Soldadutzako baimena lortu eta lan solte batzuk egiten zituen aitajaunarekin. Mila lan ezberdin egin zituen parrokian; bi gotzainen ezkutuak tartean.

14. Gasteizko lanak

- **Erref:** ONA-066/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:46:55. **Bukatu:** 00:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Oñatin ez ezik, Gasteizen ere egin zuen lan. Lehenengo kanposanto ondoan eta gero Goribar Goitin izan ditu tailerrak.

15. Oteizarentzako lanean

- **Erref:** ONA-066/016
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:52:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Oteizaren apostoluen eskultura lantzen ere aritu zen. Oteiza gizon ona baina genio biziko gizona omen zen.</p>

Transkripzioa

- Moreno hau zurekin ibillittakua da?
- Bai.
- Eta Moreno ibilli zan ba, ezta? Edo zu, eztakit, Oteizaren zerak itten zu ibilli ziñan?
- Bai.
- Apostoluak itten ibilli ziñan ezta, orduan?
- Gu e, gu Arantzazun esan dot ba Arantzazun igeltsero gabitzela, han lautadan igeltsero gabitzela, zera ta ba gu mutil gaztiak, mutil gaztiak pentsau egizu soldau fan barik neuen ta; eta han lautadako atzekaldian, oin lautada atzekaldian dao galerixia, zera, hantxe, ta ze itten xok aittona horrek? Aittona edo aittajun horrek edo, zeorrek, bere bizar haundixakin.
- Oteiza?
- Oteiza, ta ixa hanketaraiñoko blusa zuri bat eta zerakin han ibiltten zan. Eta gu, ba ha han eta gu igeltsero, hantxe onduan, zerien ta, hola; ta orduan ha gaztia izango zan artian baiña guretzako zaharra, serixo hola. Bizar haundixakin ibiltten zan, betibe hola begira ta zera. Gero berriz bearekin tokau. Harek modeluak itten ebillen orduan. Arantzazuko tamaiño hontakuak dira modeluak.
- Apostoluenak?
- Eskaiolan apostoluenak. Eta gero modelotik bat hirura in ziran, bat hirura. Modeluak hareik Arantzazun han egongo dira ondiok nunbaitten han egongo dira hareik modeluak bota ezpa(di)ttue in behintzet norabait.
- Berak in zittuan modeluak?

- Berak in zittuanak. Altura hontakuak, bai, bi metro ta larogei zentimetro inguru uste dot dakoilla bai, oingo apostoluak, harrizkuak indda daozenak, ifiñitta daozenak, eta han, eta guk hola. Eta gero gu han igeltsero gabitzela, apostoluak itten be beebitzen hantxe eskola onduan. Eskolia oin ba, oin Arantzazura sartzen gara eta han plazuela haundixa badao ba ha? Han barandilla txapazkua? Txapazkua barandillia hasten dan lekuan baiño lehentxuau euen eskolia, Arantzazuko eskolia. Eta etxe bat zan eta eskolia, eta hantxe eskola onduan ibili ziran apostoluak itten. Madridetik etorri zan tallista bat Serrano, Serrano apellidua eukan Serrano, eta haren laguntzaille Tomas 'Errekatziki', Tomas Uriarte, Tomas Errekatziki ba desbastiak eta itten, bestia zerien ba tallistia ba puntuak etara ta zerak eta. Hiru in zittuein hantxe gu han gabitzela, eta laugarrena hasi, eta gero eztakit ze pasau zan, beste 16 urtian, 16 urtian? Gehixauan egongo ziren geldik.

- Nik badakit ze pasau zan. Erromak prohibiu iñ eben.

- Prohibiu.

- Erromak, aitta santuak prohibiu eben obra hori.

-Bai. Eta gero ba gu, ni behian etorri eta gero ba beheko lanetan eta gabitzela eta goiko taillerrian ta gabitzela, orduan hasi ziran berriz zerak in bihar zirala, apostoluak in in bihar zirala, eta orduan...

- Permisua emun eueñian izango zan.

- Eta orduan nik eruaten nittuan bi hargin, hori Moreno hori, Moreno zeori tallistiori, hori Eskolatxon gaiñian bizi zan, panaderixa gaiñian, hori eta taillerretik beste bi hargin zerak, galleguak, eruaten nittuan nik egunero Arantzazura apostoluok itteko. Eta Oteiza han ibiltten zan, eta ni horreik jentia eruan, herraminttak eruan, amostu itten ziran, barrixak eruan, zorroztu ta hola. Eta Oteizari zenbait bidar eruan xaoten nik buztiña eta eskaiola ta. Eta eruaten enotzanian hasarre, EEE! Hasten zan.

- Jenixo txarra. Jenixua e?

- Oso jenixo bizikua zan e? Oso zera zan, bestela etzan gizon aldrebesa. Bai, baiña hola , eta gero ba guk han, nik zerian desbastaitten ta asko enitzan ibilli, gero kolokaitten ta bai.

16. Arantzazuko harria Lasturtik eta Markinatik

- **Erref:** ONA-066/017
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:52:09. **Bukatu:** 00:56:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Arantzazuko dorre baten lan batzuk egin zituen, Lasturko harrobitik materiala ekarrita. Apostoluak egiteko harria Markinatik ekarri zuten. Pietatearentzako harria Jabierrek berak ekarri zuen Markinatik.</p>

Transkripzioa

- Baiña gu orduan denpora baten ibili giñan, Arantzazuko torriak hona aurrekaldera eukein bi bentana, bi bentana bastante haundixak, zerak, kanpaiak ifintteko itxi zittuen, baiña ura sartzen zan, badakitzu hemen ipar aldetik bendebala joten danian barrura elizara sartzen da ura. Eta gero atzera horreik tapau in gittuan. Fan Lasturrera, Lasturgo kanterara, neurrrixak eta eruen, lehen be handik ekarritako harrixa dakoi, Lasturdik ekarritako harrixa da hori, zerak, horreik harri muturrok...

- Lasturdik, nik Sevillatik ekarritakuak...

- "Punta de diamante" edo hori. Hori Lasturgo kanteran be iiten ziren, zerak desbastau, pittin bat barrenuak eta sartu pittin bat, eta gero hareik etorten ziren ba pittin bat zerien, ba barreno zuluak eta bistan ta holako zerak, ta gero ibili ziran Araozdik hori Tomas "Errekatziki", Tomas Uriarte, ta haren semia eta beste bi hargin ibili ziran horreik arreglaitten; eta handik ekarten ziran desbastauta eta hemen pittintxo bat muturrok eta arreglau eta gero beste gallego batzuk kolokau in zittuen. Baiña horreik Lasturgo kanteratik. Lasturren bi kantera dao, hola sartzen bazara bat, eskumako aldekoa, eta gero handik ekarri gittuan harrixok, arreglau geuk eta bentanok itxi gittuan. Han dao holako harri baten kuadrúa itxi argixa edo sartzeko eta bestiak ... Eta gero kanpaiak ifiñi ziran torre haundixan.

- Hori igarri ingo da, ezta?

- Ez, bai zera. Igual-igualak jarri gittuan ta, koloria be iguala, bueno, nik banekixen nundik ekarritakuak ziren horreik, badakitzu han nola ibilli giñan ta guk nunguak ziren bagekixen eta lehen, handik ekarri geben. Apostoluak berriz dira Markinakuak, Markinan hor oin, oin urte batzuk dirala helikoptero bat jausi zan ba?

- Bai, kanteran.

- Kanteran. Kantera hartakuak dira. Dako illuna, harri illuna eta beta, beta zuri barikuak.

- Aulezti aldeko kanterakuak, bueno, Markiña sarreran dagona.

- Bai. Zu hemendik goittik baldin bazoiaz, hemen Mallabittik baldin bazoiaz, Markinan sartu aurretik ezkertera hartu, han. Eta handik, a bai? Zuk hobeto ezagutuko dozu, han dao kantera asko dao han, kamiño azpikuak dira horreik, eta kamiñuaz gaiñetik daozenak, beste bi badaoz, ta hareik dakoi harri baltza baiña beta zuri asko, eztakitzu hori polittori bada ba Markinako zeori, beteau hori? Hori baiña honeik apostoluak dira kamiño azpikuak.

- Oteizak beta barik gura zittun?

- E?

- Oteizak beta barik gura zittuan apostoluok?

- Itxuria. Eta guk gero, geruao apostoluakin eta ifiñi ziranian, Ama Birjiña falta zan goikua, [...] eta Piedade hori zeori, eta nik banekixen kanteria ta nun euen eta horreik ez ekixen, zerak, eta zerak orduan frailiok eta in in bihar zala, hareik be in in bihar zirala eta aber kanteria eta fango giñala, eta fan kanterara Markinara, elejiu neurrixak eta danak, eta nik banekixen zein kanterakuak ziren ta hola ekarri gittuan eta labrau ziren.

17. Futbola dantza baino nahiago

- **Erref:** ONA-066/018
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:56:03. **Bukatu:** 00:59:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>San Juan zelaian jolasten zuten futboleak. Baita etxe azpiko bidean ere. Igande iluntzetan kalera joaten ziren bueltatxo bat ematera. Garagaltzako auzotarrak ez ziren dantza zaleak. Auzokoak kuadrillan joaten ziren kalera.</p>

18. Auzoko jaiak

- **Erref:** ONA-066/019
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:59:06. **Bukatu:** 01:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Garagaltza auzoko jaiak San Juanetan ospatzen zituzten. Torre auzoko eta Garagaltza auzoko jaiak jendetsuak izaten ziren. Jaia ordu batean bukatzen zen, bi guardia zibilen zaintzapean. Bi egun irauten zuten jaiek.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com